



**Arartekoaren 2019R-590-18 Ebazpena, 2019ko urtarrilaren 10ekoa. Horren bidez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuaren Eskaren Erregistroan egin zen inskripzio baten antzinasuna berrikusteko gomendatu zaio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen "Etxebide" Etxebizitza Babestuaren Eskaren Erregistroan egin zen inskripzio baten antzinasunarekin desadostasuna azaltzen zuen herritar baten kexa.

Kexa-idatzian, kexagileak adierazi zuen 2003tik zeramala alta emanda babestutako etxebizitzaren eskatzaile gisa. Hasiera batean, erosketa-araubidean eta, geroago (2006an), erosketa- zein alokairu-araubidean.

Hala, 2013ko urtarrilaren 2ko ondorioetarako, Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzak ofizios aldatu zuen sarbide-araubidea eta erosketa-araubidea ezarri zuen aukera bakar gisa.

2. 2016ko urriaren 13an, kexagileak erabaki honen berri izan bezain laster, kexa formal bat jarri zuen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean.

Horri erantzunez, 2016ko urriaren 18an, sailak atzera bota zituen kexagilearen asmoak eta sarbide-araubidearen aldaketa Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren emandako etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko 2012ko urriaren 15eko agindua (aurrerantzean, 2012ko urriaren 15eko agindua) indarrean sartu zelako egin zela argudiatu zuen.

3. Azkenik, 2018ko martxoaren 19an, kexaren sustatzaileak bere desadostasuna berriro adierazteko beste kexa bat jarri zuen, oraingo honetan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean.

Zehazki, zalantzan jarri zituen sailak harturiko erabakia eta etxebizitza duin eta egoki baterako eskubide subjektiboaren aitopenera sartzeko bere inskripzioaren araubidearen aldaketaren inguruko informazio falta.

Helarazitako erreklamazioari erantzute aldera, sailak idatzia igorri zuen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailak jadanik 2016. urtean egin zuen baldintza beretan.

4. Azkenik, kexaren sustatzaileak bere espedientean jasota zuen informazioa helarazi zuen, jakinarazpenetarako bere helbideaz gain, telefono finkoaren eta telefono mugikorraren zenbakia eta helbide elektronikoa barne hartzen duena.





5. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bat igorri zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Bere idatzian, Arartekoak kexagileak egindako gogoetak helarazi zituen eta "Etxebide" Etxebizitza Babestuaren Eskaberen Erregistroan sartzeko araubidea aldatzeko erabakia hartu izanaren arrazoi juridikoak azaltzen zituen txosten bat igortzeko eskatu zuen.

Azkenik, Arartekoak prozeduran jakinarazpen pertsonal ezberdinak zein modutan gauzatu ziren egiaztatzeko eskatu zuen eta, horretarako, jakinarazpen-saiakera ezberdinen kopia bidaltzeko eskatu zuen.

6. Hasierako lankidetzeta-eskaera horri erantzunez, sailak bere iritzia helarazi zuen. Bere idatzian, Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzaren administrazio eta zerbitzuen arduradunak harturiko ebazpenaren arrazoiak eman zituen eta inskripzioaren antzinatasuna alokairu-araubidean bakarrik 2016ko apiriletik mantentzeko erabakia berretsi zuen.
7. Hortaz, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

#### Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) ere, azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Babes publikoko etxebizitza bat legez okupatu ahal izateko, nahitaez eman behar da izena "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan.

Zentzu horretan, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legeko (aurrerantzean, 3/2015 Legea) 13. artikulua Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroa sortzea aurreikusten du. Horrek, aurretiko administrazio-erregistroa ordezkatuko du edo, hala badagokio, jarraipena emango dio horri. Erregistro horren helburua izango da etxebizitza babestuen eskatzaileak ezagutzea; halaber, babes publikoko etxebizitzaren esleipena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna izango da.

Bien bitartean, araudia garatuta ez dagoenez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa da etxebizitza babestuen eskatzaileen kudeaketa eta kontrola egiteko lana egin behar duena.





3. Izan ere, zenbait betekizun eta eginbehar bete behar dira "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan izena eman ahal izateko.

Hala, 2012ko urriaren 15eko aginduaren II. kapituluak berariaz ezartzen ditu aipaturiko erregistrora sartzeko baldintza orokorrak eta eskaera orok izan behar duen eduki zehatza.

4. 2012ko urriaren 15eko agindua indarrean sartu aurretik, sailak ahalmena ematen zien inskribaturik zeuden pertsoneri babes publikoko etxebizitzara erosketa- zein alokairu-araubidean aldi berean sartzeko.

Hala ere, 2012ko urriaren 15eko aginduak sartu zuen betebehar berri baten ondorioz, inskribaturiko pertsonak sarbide-eredu bat edo beste bat aukeratu behar zuten eta ez zegoen baimenduta bi sarbide-araubideetan mantentzea.

Era berean, inskribatutako pertsonak ez zuenez aukera zehatz bat aukeratu, aipaturiko aginduaren lehenengo xedapen iragankorrak inskribatutako pertsonaren sarbide-araubidea zehazteko ahalmena eman zion ofizioz Sailari.

Zehazki, lehenengo xedapen gehigarriak berariaz ezartzen duenaren arabera:

Hala ere, agindu horrek honako eskakizun hau ezartzen du:

2012ko urriaren 15eko agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2012ko abenduaren 31n, eta indarrean sartu zen 2013ko urtarrilaren 2an.

5. Aurreko guztiagatik, jakinarazpen-saiakera zein modutan egin zen egiaztatzeko eta kexaren sustatzaileak jakinarazpena jasoko zuela ahalik eta gehien ziurtatzeko bermeak betetze aldera burutu ziren jarduketak egiaztatzeko eskatu zion Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean, 39/2015 Legea) administrazioa behartzen du interesdunei jakinaraztera bere eskubide eta interesak ukitzen dituzten administrazio-egintzak eta, horrez gain, egintzen eraginkortasuna jakinarazpen hori egitearen menpe uzten du (39. eta 40. artikulua).

Eskakizun berbera jasotzen zen era berean garai hartan aplikagarria zen herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.1. artikuluan. Zehazki, agindu horrek honako hau adierazten zuen:





Laburbilduz, jakinarazpen ororen helburu nagusia da egintzaren edukia interesdunari hel dakion; hala, betiere bermatu behar da ziurgabetasunik ez dagoela jarduteko aukerei dagokienez eta formalitate guztiak xede horren zerbitzura daudela.

6. Arartekoak egindako lankidetzak-eskaerari erantzute aldera, sailak honako hau adierazi zuen:

Era berean, argudiatu zuen sarbideari dagokionez kexagileak ez zuela lehenengoz adierazi eta, hori dela eta, 2012ko urriaren 15eko aginduaren lehenengo xedapen gehigarrian adierazten den bezala, sailak, ofizioz, babes publikoko etxebizitzara sartzeko aukera eskusibo gisa erosketarena ezartzea erabaki zuen.

7. Espedientean jasotzen den dokumentazioa aztertu ostean Arartekoak egiaztatu duenaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ezin izan dute modu frogagarrian egiaztatu kexagileari informazioa helarazi zitzaioala garai hartan aplikagarria zen 30/1992 Legeko 59.1. artikulua ezartzen zuenaren arabera.

Sailak harturiko erabakiak, kexagilearen berariazko borondate-adierazpenik gabe, bere interesetarako kaltegarriak diren ondorioak sortzen ditu, izan ere, horren ondorioz, kexagileari ezin baitzaio aitortu etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubidea, Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzaren arabera, alokairu-araubidean etxebizitza eskatzaile gisa egindako bere inskripzioak ez baitu betetzen 3/2015 Legeko laugarren xedapen gehigarrian eskatzen den gutxieneko lau urteko antzintasuna.

8. Are gehiago, Arartekoak egiaztatu ahal izan duenaren arabera, kexagileak helarazi zuen "espediente-txostenean", jakinarazpenetarako bere helbideaz gain, telefono finkoaren eta telefono mugikorraren zenbakia eta helbide elektronikoa ere azaltzen dira.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, bere ekintzek "Etxebide" Etxebizitza Babestuen Eskaren Erregistroan inskribatutako pertsonen eskubideak kaltetu ditzaketenean, burutzen duen jarduketan ezberdinen jakinarazpenen behar adineko arretaz jardun behar duela azpimarratu du behin baino gehiagotan Arartekoak.

Zehazki, Arartekoaren arabera, kasu horretan, sailak arreta handiagoarekin jardun behar duen eta babes publikoko etxebizitzara sartzeko modalitatean egindako aldaketa jakinarazi behar duen, jakinarazpen pertsonal baten bidez, legez ezartzen diren baldintzetan. Horretarako, pertsona interesdunei bere jardueraz-eragin ditzakeen ondorioak ezagutzeko aukera emateko, beharrezkoak ziren baliabideak erabili behar du lituzke.

Edonola ere, aurretik aipaturiko baldintzetan egindako jakinarazpen pertsonalaz gain, sailak, kasu honetan, hainbat telefono-zenbaki eta helbide elektronikoko bat





zeuzkan eta bertara bidali ahal izan zuen pertsona interesdunen jarduera-ezaren ondorioei buruzko informazioa.

Azken batean, Arartekoaren arabera, Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzak baliabide nahikoa zituen bere eskura jakinarazpen egoki bat egiteko eta, erakunde horren ustez, jakinarazpen hori gauzatzeak ez zuen neurritz kanpoko ahalegin bat eskatzen.

9. Eska daitekeen diligentziari dagokionez, Auzitegi Konstituzionalak honako hau adierazi zuen: (Auzitegi Konstituzionalaren urriaren 29ko 133/1986 epaia eta azaroaren 27ko 188/1987 epaia).

Hala ere, Auzitegi Konstituzionalaren martxoaren 13ko 65/2000 Epaia babesa eman zion eskatzaileari administrazioak bere helbidea ezagutzeko aukera zuela argudiatuz, izan ere, espedientean bertan telefono-zenbaki bat azaltzen baita.

Zehazki, auzitegiak, ondorio gisa, honako hau adierazi zuen:

10. Laburbilduz, kexa-espediente honen izapidetzean Arartekoak egiaztatu duenaren arabera, 2012ko urriaren 15eko agindu indarrean sartzearen ondorioz babes publikoko etxebizitza eskaerara sartzeko araubidean eragingo lituzkeen aldaketen berri ematerako orduan Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzak ez zuen erakutsi eskatu daitekeen gutxieneko arreta.

Hain zuzen ere, informazio hori ez zenez bidali, Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzak ofizioz aldatu zuen kexagilearen inskripziora sartzeko aukera eta erosketa-araubidea ezarri zen aukera bakar gisa. Horren ondorioz, gaur egun, bere inskripzioak ez du betetzen etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubidea aitortua izan dadin eskatzen den lau urteko gutxieneko antzintasuna.

11. Ondorioz, Arartekoaren arabera, sailak beharrezko jakinarazpen pertsonalak egin beharko lituzke garai hartan aplikagarria zen 30/1992 Legeko 59.1. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Edonola ere, Arartekoaren arabera, espedientean sartze hutsarekin, Bizkaiko Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritzak 2012ko urriaren 15eko agindua indarrean sartzearen ondoriozko aldaketen berri hasiera batetik emateko nahikoak ziren harremanetarako datuak eskuratuko lituzke.

Azken finean, espedientean jasotzen den dokumentazioan ez da azaltzen jakinarazpen-moduarekin edo informazio hori eskuragarri jarri izanaren egiaztapenarekin loturiko aipamenik.

Alderdi horri dagokionez, Arartekoak badaki sailak, posta bidezko jakinarazpen arruntak egiteaz gain, hainbat kasutan posta elektronikoko bidezko informazio-bidalketarekin osatzen duela bere jarduna (eskatzaileak adierazitako eragin-eremuko etxebizitza-sustapenekin, inskripzioaren bi urteko indarraldiaren amaierari eta hori berritzeko beharri buruzko jakinarazpenekin loturiko informazioa).





Aurretik azaldutako guztiagatik, erreklamaziogilearentzako “Etxebide” Etxebizitza Babestuaren Eskaren Erregistroan duen antzintasuna galtzeak suposatzen dituen ondorio larriak kontuan hartuta, Arartekoaren ustez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari arreta handiagoa eskatu dakioke 2012ko urriaren 15eko agindua indarrean sartzearen ondoriozko aldaketen jakinarazpenean.

Arartekoak berriz ere azpimarratu du eskaeran bertan telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa agertzen zirela eta horrek interesduna aurkitzea errazten duela. Gainera, sailak ez du ahalegin handirik egin behar, ezta bere eginkizunarekin zer ikusirik ez duen ahalegin konplexurik ere.

Egin diren gogoetak kontuan izanda, Arartekoaren ustez, “Etxebide” Etxebizitza Babestuaren Eskaren Erregistroko inskripzio-eskaeretan duten ondorioak direla eta, sailaren jarduketa lagundu behar izan zuen jakinarazpen pertsonala ez zen behar bezala gauzatu.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egiten du:

## GOMENDIOA

Azaldutako guztia kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak berriki eta aitortu dezala alokairu-araubideko etxebizitza eskatzaile gisa kexaren sustatzailea den pertsonaren inskripzioaren antzintasuna, egiaztatuta geratu baita sailak ez zizkiola kexaren sustatzaileari behar bezala jakinarazi 2012ko urriaren 15eko aginduan aurreikusitako aldaketak.

